



OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

JARDUERA NAGUSIAK

Ekonomia Itun berria eta Ekarpenei buruzko Lege berria 2002ko zergabilketa
Zergadunentzako arreta eta laguntza zerbitzuak
Administrazio digital baterantz
Zerga Iruzurraren aurkako Foru Plana

EKONOMIA ITUN BERRIA ETA EKARPENEI BURUZKO LEGE BERRIA: FINANTZA ARLOKO EGONKORTASUNERAKO OINARRIAK

Ekonomia Ituna berritzea:
agintaldi honetako gertaerarik garrantzitsuena

Kupoaren Batzorde Mistoaren 2002ko martxoaren 6ko erabakiak, maiatzaren 23ko 12/2002 Lege bihurturik, Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Ekonomia Ituna onartu du. Itun berri honek 1981eko Itunaren printzipio eta jarraibide berdinak ditu eta aplikazioan segurtasun juridiko handiagoa izateko prozedurak finkatu ditu.

Itunak amaierarik gabeko izaera du, Konstituzioaren eta Autonomia Estatutuaren babespean, jarraipena izango duela bermea izanik esparru egonkor batean egon dadin. Horiek horrela, Estatu eta Europar Batasuneko zerga-sistemek izan ditzaketen aldaketetara egokitzeko aurreikuspenak jaso dira Itunean.

Itun berriaren onarpenak 2 batzorde misto eratzea ekarri du, Ekonomia Itunaren Batzordea eta Arauen Koordinazio eta Ebaluazio Batzordea. Batzorde hauek, Arbitraje Batzarekin batera, legearen testuan bertan dauden aurreikuspenen aplikazioagatik, aldaketengatik edo egokipenengatik sor daitezkeen ezadostasunak ebaztea eta erabakiak hartzea erraztuko dute.

Zerga-alorretik, testu berriak Gipuzkoako zerga-sistema osatzen duten foru eskumen guztiei eustea berresten du, baita europar testuinguruan zerga-sistemaren bilakaera dela eta egin beharreko aldaketak eta egokipenak egiteko aukera izatea, baita zerga figura berriak kontuan hartzearen edo nazioarteko akordioen ondorioz planteatzen daitezkeen aldaketak eta egokipenak egitea ere.

Finantzen ikuspuntutik, Batzorde Mistoaren 2002ko martxoaren 6ko bileran, 2002-2006 bosturtekoan Euskal Herriaren Kupa ezartzeko metodologia onartu zuten. Hori maiatzaren 23ko 13/2002 Lege bihurtu zen eta alor horretako azken bosturterako legean

kontuan hartutako elementuak eguneratu egin ditu, akordioen aplikazioaren ondoriozko finantzen alorreko egonkortasunarekin hausturarik ez dagoela. Dena dela, 2002. urtean indarrean dagoen finantziario publikoaren eskemara egin beharreko egokitzapena ere jaso du.

Itun berriaren onarpenak oinarriak finkatu ditu, ez bakarrik oraingo zerga-alorreko eskumenen eginkizunetan jarduten jarraitzeko, baizik eta, 1978ko Konstituzioaren abala izan zuen etapa demokratikoko lehen Ituna indarrean egon zen bitartean zenbait alditan egin bezala, etorkizunean izan daitezkeen egokitzapenak bermatzeko ere bai.

2002-2006 aldirako Ekarpenei buruzko Lege berria:
beharrezko egokitzapena

Datorren bosturtekoan kupoa kalkulatzeko metodologia eta Ekonomia Itun berria onartzeak berekin ekarri du 2002-2006 aldirako ekarpenei buruzko lege berri bat onartzea, egokitu eta proposatu ondoren. Lege horrek etorkizun hurbilean egon daitezkeen zalantzak argitzen lagunduko du. Halaber, lege horrek aurreko legearen ildotik jarraitu du eta finantza nahikotasunaren egungo estandarrei eutsi die, euskal erakundearen aurrekontuen alorreko egonkortasuna bermatzeko.

Eusko Legebiltzarrak aho batez onartu zuen urriaren 4ko 6/2002 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuak finantzatzeko foru aldundien ekarpenen banaketarako metodologiari buruzkoa, 2002-2006 aldirako ezargaria dena, Finantza Publikoen Euskal Kontseiluak egindako proposamenarekin bat etorrira.

2002ko ZERGABILKETA: BALANTZE POSITIBOA

2002ko koiuntura ekonomikoan argi-ilunak egon dira; hala ere, azken emaitza gisa, esan dezakegu urte guztiko jarduera positiboa izan dela, Ogasunak ematen dizkigun datuak kontuan hartuta, behintzat. Izan ere, Ogasuna Gipuzkoako lurraldean dauden era guztietako enpresarik gehienek jardueren emaitzak batzen dituen gunea da.

Nahiz eta 2001. urtea irailaren 11ko gertaerengatik asaldatuta amaitu eta ziklo ekonomikoa neurri batean agortu, ekitaldia nolabaiteko orekaz bukatu zen. Oro har, eta Gipuzkoari dagokionez, adierazle gehienak positiboak izan dira 2002. urtean. Horrela, lanean ari den populazioaren tasa %4 hazi zen eta, horren ondorioz, langabezia %6,8an geratu da.

Jarduera industrialak %-1,8ko hazkunde erritmoa izan du urtarrietik azarora, nahiz eta esan daitekeen, azken 2 hilabeteko datuak ikusirik, Gipuzkoako ekonomiaren adierazle garrantzitsu hori hobera joango dela.

Eraikuntzaren sektorean, balantze positiboa izan da: proiektu industrialak %11,5 hazi dira 2001. urtearen aldean. Zementuaren kontsumoa, ordea, %2,4 gutxitu da, eta lanean ari den populazioa %6,3 gehitu da.

Zerbitzuen sektoreari dagokionez, hazkundea hobetu da pixka bat; horrela bada, okupazioaren gehikuntza %6,2koa izan da.

Dolar/euro trukeaz baliatuta esportazioak %8,5 hazi dira, nahiz eta inportazioak ere berdin hazi diren.

Gauzak horrela, hona hemen zerga ekitaldiko alderdi nagusiak:

_ Zerga itunduen bilketa %6,5 hazi da 2001. urtearen aldean: 2,8 milioi euroko zenbateko garbia baino gehiago bildu da. Beraz, aurrekontuko aurreikuspenak %102,9an bete dira.

_ Zerga itzulketak %11,5 hazi dira aurreko urtearen aldean: ia 582 milioi eurokoak izan dira azkenean.

_ 2002. urtean Errentaren aitortpenaren araudi berriaren aplikazioa finkatu da, Zergabilketa %7,9 hazita.

_ Sozietate Zerga %2,5 hazi denez, esan daiteke enpresen 2001eko emaitzak finkatu direla.

_ Zeharkako zergak %6,4 hazi dira; izan ere, ondare-eskualdaketen atalean hazkundea oso handia izan da (%14,3) eta nahiko handia zerga berezien (erregaiak, alkoholak eta tabakoa) atalean. Dena dela, autoen matrikulazioetan, 2001. urtearen aldean, jaitsiera %10,1ekoa izan da. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren bilketari dagokionez, oro har %4,7 hazi da eta kudeaketa propioaren eragiketen gehikuntza %3,4koa izan da.

_ Jokoaren gaineko Tasaren eta zerga kudeaketako sarrera propioen kapituluan (zigorrak, errekareruak eta berandutza interesak), aurtun %3,1eko hazkuntza izan da oro har.

Zerga sarreren balantze gisa esan daiteke urteko emaitza ikusita aurreikuspenak aise bete direla. Izan ere, benetan bildutakoak aurrekontuak egin orduko aurreikusitako zifra 79,6 miloi eurotan gaudituz du.

ZERGADUNEI ARRETA ETA LAGUNTZA EMATEKO ZERBITZUA: ONETSITAKO AHALEGINA

2002. urtean, Departamentuak zergadunei arreta eta laguntza emateko sistemak eta bitartekoak indartu ditu, batez ere, errentaren urteko kanpainari dagokionez. Honako hauek dira horri buruzko daturik interesgarrienak:

_ 2002. urtean, bulego nagusietan 64.795 kontsultari erantzun zaie eta telefono bidezko sistemaren bitartez 77.000 hitzordu erreserbatu dira.

_ 10.000 zergaduni errentaren aitortpenak eginda bidali dizkiegu euren helbidera. Datuak ongi egon diren kasuetan, zergadunek telefonoz edo posta elektronikoz adostasuna agertu besterik ez dute egin behar izan.

_ Errentaren aitortpena egin ahal izateko laguntza eman diegu 138.000 pertsonari, bulegoen sarearen bitartez.

_ Errentaren aitortpen negatiboetako itzulketak egiteko epeak laburtu dira eta kanpainaren egunetan epe horietan itzulketa eskatu dutenen %90i egin zaie itzulketa.

_ Aurrez aurre bulego nagusietan emandako arretari esker, 12.625 kontsulta argitu dira.

Departamentuaren bulego nagusietan jendeari aurrez aurre arreta emateko sistemak modu nabarian hobetu ditugu ekitaldi honetan eta telefono bidezko arreta-sistema berri bat jarri dugu. Honi esker, itxaron beharreko denbora laburtzea eta zerbitzuaren kalitatea hobetzea espero dugu.

Bulegoen sarean zergadunei arreta emateko zerbitzuak hobetzea modu berezian izan dugu kontuan eta horren emaitza dugu azaroan Departamentuari zergadunei arreta emateko jardueran ISO 900/2001 arauaren kalitatearen homologazioa eman izana.

Bulegoen lurralde-sarean, besteak beste, zerga-alorreko arretari dagozkion lan hauek burutu dituzte:

_ Zerga-alorreko 90.021 kontsultari erantzuna ematea.

_ 108.386 zerga aitortpen jasotzea.

_ 20.956 agiri erregistratzea eta jasotzea.

_ Zerga-egoerari buruzko 103.020 ziurtagiri kudeatzea.

Departamentuaren jarduerari Foru Ogasunarekin harremanetan egoten direnen aldetik etengabeko kontrastea egin zaio eta zerbitzua hobetzeko era guztietako iradokizunak eta zerga-alorreko harremanetan zergadunek izan ditzaketen kekek Departamentuari helarazteko sistema bat jarri da. Sistema horrekin iradokizunak edo kekek leihatiletan egindako erreklamazioen bidez, idazkien bidez eta bai Departamentuaren web orriaren bidez ere aurkez ditzakete zergadunek.

Zerbitzu berri hori abian jarrita, errazagoa da bertatik bertara ikustea zeintzuk diren zergadunentzako kezkarik ohikoena eta, hobetzea badago, gaiak-eta planteatzen dituzten neurrian zerbitzua hobetzea.

ADMINISTRAZIO DIGITAL BATERANTZ: ZERGEN AITORPEN TELEMATIKOA ETA BESTE ZERBITZU TELEMATIKO BATZUK

2002ko Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren aitortpenak egiteko kanpainan partikularrei urteko zergen aitortpenak zuzenean Interneten bidez egitea ahalbidetzen dien sistema estreinatu da. Sistema hori erabil dezakete, berez, Errentaren, Ondarearen eta Sozietateen gaineko Zergen aitortpenak egiteko eta atxikipenen eta hirugarren pertsonekin izandako eragiketen alorrean eduki berriemailea duten urteko aitortpenak egiteko. Zerbitzuak eguneko 24 orduetan funtzionatu du eta emaitzak oso onak izan dira, hasiera eman berri zaion esperientzia dela kontuan hartuta.

Partikularrek 2002. urtean Interneten bidez egindako zerga aitortpenak

Internetez partikularrek egindako PFEZ aitortpenak	6.000
Internetez partikularrek egindako Ondare aitortpenak	200
Internetez egindako Sozietateen Zergako aitortpenak	200
Internetez egindako aitortpen informatiboak	7.100

Partikularrek 2002. urtean disketean egindako zerga aitortpenak:

Partikularrek disketean egindako PFEZ aitortpenak	15.300
Partikularrek disketean egindako Ondarearen Z.	1.020
Entitateek disketean egindako Sozietateen Z.	4.150
Disketean egindako eredu informatiboan aitortpenak	3.550

Baimena duten eragileen bidez egindako zerga aitortpen telematikoak:

Baimena duten 275 eragileen bidez 2002. urtean egindako aitortpen telematikoak (PFEZ, Ondarearen eta Sozietateen gaineko zergak) 144.500 izan dira; hau da, 3 zerga horien aitortpen guztien %42,2 aitortpen telematikoak izan dira eta portzentajerik handiena pertsona fisikoei dagokie.

	2002	2001	Guztiaren %a
PFEZ	131.000	124.000	41,7%
Ondarearen Z.	6.900	5.900	49,6%
Sozietateen Z.	6.900	3.200	41,0%
GUZTIRA	144.500	133.100	42,2%

Paperean, inprimaki ofizialetan, egiten diren aitortpenak pixkanaka-pixkanaka gero eta gutxiago dira PFEZri dago-kionez eta azken kanpainan Foru Ogasunari aurkeztutako aitortpen guztien %5,5 baino ez ziren izan.

Sareko beste zerbitzu telematikoko batzuk

Errenta eta Ondarearen web orrira sartutako ondorior, 67.000 kontsulta egin dituzte 2002. urteko kanpainan; hots, aurreko urtean baino % 31 gehiago. Guztira 1.309.000 orri ikusi dituzte.

Halaber, Interneten bidez bulegoetara joateko hitzordua lortzeko egindako eskaerak azken kanpainan 52.051 izan dira; hau da, erreserba guztien %40,5.

Ordaintzeko zeuden itzulketen egoera zein zen jakiteko Interneten bidez egindako kontsultei dagokienez, 6.900 sarrera egon dira urtean eta web orriaren bidez erantzundako norbanakoen kontsultak 998 izan dira.

2002. urtean web orrian aplikazio berri bat jarri dugu, herritarrek Foru Ogasunaren zerbitzuen funtzionamenduari buruzko kexak eta iradokizunak web orriaren bidez zuzenean aurkezteko. Plan-teatutako gaiei emandako tratamenduaren berri emateko edota erantzuteko bitarteko bera erabili dugu.

Halaber, zerga-egoerari buruzko ziurtagiriak eskatzeko beste zerbitzu berri bat jarri dugu abian, baimena duten eragile telematikoen eta beste administrazio publikoen web orriaren bidez eragiketa hori egiteko.

ZERGA IRUZURRAREN AURKAKO FORU PLANA; BETETZEN DUTENEKI KONPROMISOA

Gipuzkoako Batzar Nagusiek iruzur fiskalaren aurkako borroka-jardueretan aurrera egiteko proposamenerako eta eztabaidarako ponentziari dagokionez, 2002. urtean hilero egin dira bilerak iruzurraren aurkako borrokan zenbait ikusmolde aztertzeko, lurraldearen informazio fiskal handiagoa edukitze bidean sakontzeko eta Aldundiak berak proposatutako zenbait neurri bideratzeko. Ponentziak dagoeneko 3 urte eman ditu bilerak egiten eta emaitzak oso positiboak izan dira herritarrentzat hain interesgarria den gai honen inguruko jarduketak bultzatzeko orduan.

Departamentuak zerga iruzurrari aurre egiteko edota murrizteko ekintzak *Zerga Iruzuraren aurkako Foru Planaren* jarraibideei lotuta daude. Gero eta ekimen gehiago egiten ditu Foru Ogasunak, denek legearen arabera joka dezaten. Zentzu horretan, hasieran jasotako 103 neurri ondorengo ekitaldietan gauzatzen jarraituko da. Erreminta informatikoak prest edukitzea eta erakundeen arteko lankidetzak dira eguneko jardueraren oinarriak.

Plana betetzeko baliabideak

Planak baditu mota ezberdinetako hainbat baliabide. Hona hemen:

_ Egiaztatzeko, ikuskatzeko eta zergadunei ikuskaritza-jarduketan gaietan laguntza teknikoa emateko eginkizunetan prestakuntza berezia dutenentzako lanpostu berriak. Hauek badituzte zenbait baliabide elektronikoen eragiketarako erregistratzeko. 6 ikuskatzaile laguntzailek eta ikuskaritza laguntzeko informatikako 2 teknikariek osatutako lantalde bat ere hasi da lanean.

_ Ekitaldi honetan ere, jarraian hirugarren urtez alegia, 20 zerga teknikariren aldi baterako kontratazio gehigarria egin da, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpenak egiaztatzeko lanak bukatzeko eta osatzeko, baita zergadunen aurreko urteetako aitortpenak berrikusteko eta aldatzeko ere.

_ Lanpostu jakin batzuetan informatikako ekipamendu hobeak jartzea eta ikuskatzeko prozeduren analisia eta hobekuntza izan dira egiaztatzeko eta ikertzeko lanen garapenean eraginkortasun eta homogeneotasun-bermea.

_ Funtzio informatikoentzako aurrekontu arruntez gain, 2000/2003 aldirian sistema informatikoen zenbait garapen-proiektu burutzeko 6 milioi euro konprometitu dira. Horietatik 2,7 milioi informazio-azpiegiturak finkatzeko eta indartzeko izan dira, 2 milioi administrazio-espeditenteen tratamendu-sistemak hobetzeko eta 1,2 milioi herritarrengandik hurbilago egoteko zenbait tresna zerbitzuan jartzeko.

Planaren emaitzak

Hiru jarduera nagusitan oinarritzen da zerga iruzurraren aurkako lana: ikuskaritzan, kudeaketan eta zergabilketan. Zentzu horretan, hona hemen 2002. urteko jardueraren emaitza kuantitatiboak:

_ Ikuskaritzan iruzurraren aurkako lanean 774 likidazio egin dira, ia 35 milioi euroko emaitza osoarekin.

_ Zerga kudeaketako zerbitzuetan iruzurraren aurkako lanean, 44.560 likidazio egin dira, eta guztira 83,1 milioi euro jaso dira.

_ Zergabilketa exekutiboan iruzurraren aurkako lanean 21.222 zor berreskuratu dira prozedura horretan: guztira 14,9 milioi euro.

Ikuskaritzaren 2002ko kudeaketari dagokionez, emaitza hauek azpimarra daitezke:

_ Ikuskariak egiaztapen hautatuak egin dituzte, eta haien ahaleginak iruzurrezko portaerak pilatzen dituzten sektoreetarantz zuzendu dituzte.

_ Egiaztapen horien emaitza hauxe izan da: 774 likidazio eta guztira 35 milioi euroko emaitza.

_ Zergen arabera banaketa hau egin daiteke: Errenta Zergan 16 milioi euro; Balio Erantsiaren gaineko Zergan 2,1 milioi euro; eta Sozietate Zergan 7 milioi euro.

_ Beste administrazio batzuetan oker egindako sarrerei zegozkien kuotak berreskuratu dira (ia 0,3 milioi euro).

_ Ikuskatzen ari diren sektoreetako zergadunek 130 aitorten osagarri aurkeztu dituzte (ia 1,4 milioi euro).

_ Herri ogasunaren aurkako 7 delitu-espeditente tramitatu dira Ministerio Fiskalean: horri dagokion zorra 3,1 milioi eurokoa izan da.

_ Eskatutako itzulketak eta oker egindako desgrabazioak 1,2 milioi eurotan murriztu dira.

Zergabilketako kudeaketaren emaitzei dagokienez, kobruaren prozedura exekutiboaren bitartez 14,9 milioi euro bildu dira, urtearen hasieran kobratu gabe zegoen hasierako zorra 198 milioi eurokoa izanik.

Zerga iruzurraren aurkako ekintzak zerga guztien egiaztapen likidazioetan islatu dira. Hona hemen datu nagusiak:

Errenta eta Ondareko aitorten kudeaketa

Zergadunek aurkeztutako aitorten egiaztapenen ondorioz, aitortutakoa zuzentzeko 23.657 likidazio egin dira guztira: 20,7 milioi euro. Zuzendutakoaren %69 2000 eta 2001eko aitorpenei dagokie eta gainerakoa, aldiz, 1996-1999 tarteari.

Zerga honen konturako ordainketa zatikatuei eta atxikipenei buruzko aitorten egiaztapenetan, 699 faktura likidatu dira (2,2 milioi euro).

Sozietateen gaineko Zergaren aitorten kudeaketa

Sozietate Zergan aurkeztutako aitorten egiaztapenean, 17.386 aitorten aztertu dira; hau da, aurreko urtean baino %6,6 gehiago. Gainera, disketez eta sistema telematikoaz egindakoak %21,8 hazi dira.

Datu aitortuak zuzentzeko likidazioen kopurua asko gehitu da (1.774 aitorten izan dira), eta emaitza ekonomikoa 19,2 milioi eurokoa izan da.

2002. urtean 1.211 espeditente administratibo tramitatu dira, aitortzeko betebeharrak egiaztatzean nahiz zergaren araudian berariaz jasotako eragiketak eta egoerak baimentzean.

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aitorten kudeaketa

2002. urtean, 155.844 aitorten positibo aurkeztu dira zerga honetan. Guztira, 894,7 milioi euroko sarrerak izan dira, hau da, zergabilketa gordina %4,7 gehitu da. Bestalde, itzulketarako eskaera zuten 5.627 aitorten aurkeztu dituzte: 295,2 milioi euro eta %4,3ko gehikuntza itzulketa kopuruan eta %3koa eskatutako zenbatekoan.

Egiaztapenen ondorioz, 14.660 likidazio egin dira: guztira 39,9 milioi euro, honako xehetasuna dutenak:



Zerbitzuak 5.199 espeditente administratibo ebatzi edo tramitatu ditu, zentsuko aitorpenekin, hirugarrenekin egindako eragiketekin, komunitate barneko eskuraketeekin eta BEZaren ereduarekin zerkusian izan duten informazio-eskaerak edo errekerimenduenak.

——— **Gainerako zeharkako zergen aitorpenen kudeaketa**

Atal honetan hainbat zerga sartuta dago: Ondare Eskualdaketen gaineko Zerga, Fabrikazio Zerga Bereziak, Ibilgailuen Matrikulazioaren gaineko Zerga eta Jokoaren gaineko Tasa. Zerga horiei dagokionez, aitorpenak zuzentzeko 1.607 likidazio egin dira guztira, eta emaitza ekonomikoa 1,2 milioi eurokoa izan da.

——— **Udal zergak biltzeko kanpainak**

Aldundiak bere gain hartu du Ondasun Higiezinaren eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergen bilketa, udalek eskuordea emateko hitzarmenen bidez. Kanpaina horrek berarekin ekarri du borondatezko kobrantza aldiaren ordainagiri guztien %91ko sarrera izatea eta kobrupean jarritako zenbateko osoaren %90 lortzea.

Bestetik, 2002. urtean guztira 29.816 likidazio egin dira zerga horietan: guztira 7 milioi euro.

BESTE JARDUERA INTERESGARRI BATZUK

Finantza harremanak beste lurralde administrazio batzuekin

Itunaren sarrerak administrazioen artean banatzen da Ekonomia Itunaren Legeak, Kupo Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Komunitarioaren Ekarpenei buruzko Legeak jasotakoaren arabera, eta Gipuzkoako udalentsako ekarpen irizpideei jarraituta, Batzar Nagusiek erabakitakoaren arabera.

2002. urtean, 2.784 milioi eurotik gorako bilketako aurreikuspenean banaketa hau jaso da: %12 Estatuarentzako Kupoak; %62 Euskal Autonomia Erkidegoarentzako Ekarpena; %10 Gipuzkoako udalentsako fondoa; eta, azkenik, gainerako %16 Gipuzkoako Aurrekontuak (Batzar Nagusiak eta Foru Aldundia).

Behin ekitaldia amaitu eta gero, Gipuzkoako zergabilketa osoan aurreikusitakoa %2,9an gaintu da. Erakundeen arteko banaketari dagokionez, ez da aipatzeko aldaketarik izan.

Iruzuraren aurkako 2002/2001 ekitaldiko jarduketaren laburpena

JARDUKETA AREAK	2002		2001		diferentzia	
	Kopurua	Zenbatekoa	Kopurua	Zenbatekoa	Kopurua	Zenbatekoa
Zerga kudeaketa. Zuzeneko zergak	35.777	47.102	32.140	43.730	3.637	3.373
Zerga kudeaketa. Zeharkako zergak	16.267	41.170	18.611	35.111	-2.344	6.059
Zerga Ikuskaritza	774	34.570	1.175	47.913	-401	-13.343
Zergabilketa exekutiboa	21.222	14.910	26.291	16.005	-5.069	-1.095
GUZTIRA	74.040	137.753	78.217	142.758	-4.177	-5.006

(Datuak mila eurokoetan)

ZUZENEKO ZERGAK	2002		2001		diferentzia	
	Kopurua	Zenbatekoa	Kopurua	Zenbatekoa	Kopurua	Zenbatekoa
Kuota diferentziala. Errenta	22.958	18.495	26.929	20.855	-3.971	-2.360
Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga	742	1.197	601	799	141	397
Sozietateen gaineko Zerga	1.774	19.232	1.630	13.354	144	5.878
Atxikipenak eta ordainketa zatikatuak	699	2.165	860	3.642	-161	-1.477
Itzulketak deuseztuak	9.604	6.014	2.120	5.079	7.484	935
GUZTIRA	35.777	47.102	32.140	43.730	3.637	3.373

(Datuak mila eurokoetan)

ZEHARKAKO ZERGAK	2002		2001		diferentzia	
	Kopurua	Zenbatekoa	Kopurua	Zenbatekoa	Kopurua	Zenbatekoa
Balio Erantsiaren gaineko Zerga	14.660	39.946	16.718	33.188	-2.058	6.758
Ondare Eskualdaketak eta O EZ	800	605	1.374	1.022	-574	-416
Fabrikazio Zerga Bereziak	720	460	397	781	323	-321
Ibilgailuen Matrikulazio Zerga	32	16	36	24	-4	-8
Joko Tasa	55	143	86	96	-31	47
GUZTIRA	16.267	41.170	18.611	35.111	-2.344	6.059

(Datuak mila eurokoetan)

IKUSKARITZAKO LIKIDAZIOAK	2002		2001		diferentzia	
	Kopurua	Zenbatekoa	Kopurua	Zenbatekoa	Kopurua	Zenbatekoa
Zuzeneko zergak	419	23.319	729	33.843	-310	-10.524
Zeharkako zergak	124	6.409	154	6.226	-30	182
Zigorrak eta udal zergak	231	4.842	292	7.843	-61	-3.001
GUZTIRA	774	34.570	1.175	47.913	-401	-13.343

(Datuak mila euroetan)

ZERGABILKETAKO JARDUKETAK	2002		2001		diferentzia	
	Kopurua	Zenbatekoa	Kopurua	Zenbatekoa	Kopurua	Zenbatekoa
Komunikazioak eta jakinarazpenak	44.848	32.488	45.886	33.735	-1.038	-1.247
Soldaten, kontuen, kredituen... bahiturak	11.402	199.915	15.273	94.131	-3.871	105.784
Ondasun enkantea	6	14	9	126	-3	-112
Erantzukizun eratorriak	29	5.976	63	8.889	-34	-2.913
GUZTIRA	56.285	238.393	61.231	136.881	-4.946	101.512

(Datuak mila euroetan)

Zerga itunduen 2002 eta 2001eko bilketa

	2002	2001	aldea
AZALPENA			
Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga	958.474	888.536	%7,87
Sozietateen gaineko Zerga	308.983	301.510	%2,48
Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga	2.706	3.342	%-19,03
Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga	10.310	9.063	%13,76
Pertsona Fisikoen Ondarearen gaineko Zerga	31.653	32.262	%-1,89
ZUZENEKO ZERGAK	1.312.127	1.234.713	% 6,27
Balio Erantsiaren gaineko Zerga	1.005.917	962.527	%4,51
Ondare Eskualdaketen gaineko Zerga	71.031	62.157	%14,28
Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga	35.733	33.008	%8,26
Ibilgailuen Matrikulazio Zerga	17.012	18.926	%-10,11
Fabrikazio Zerga Bereziak	370.907	330.677	%12,17
Aseguru Primen gaineko Zerga	18.553	16.672	%11,28
Zerga iraungiak	-95		%0,00
ZEHARKAKO ZERGAK	1.519.057	1.423.966	% 6,68
Joko Tasa	20.573	20.200	%1,85
Errekarguak, Interesak eta Zigorrak	11.930	11.323	%5,36
TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK	32.503	31.523	% 3,11
SARRERA ITUNDUAK	2.863.687	2.690.202	% 6,45

(Datuak mila euroetan)

Entitate lankideen bitartez aurkeztutako zerga aitortpenak 2002/2001 urteetakoak

ZERGA KONTZEPTUAK	2002		2001		diferentzia	
	Kopurua	Zenbatekoa	Kopurua	Zenbatekoa	Kopurua	Zenbatekoa
Atxikipenak eta ordainketa zatikatuak	294.633	1.047.662	295.595	985.853	-962	61.809
Kuota diferentziala. Errenta	122.439	94.510	116.182	86.186	6.257	8.324
Kuota diferentziala. Sozietateak	6.445	237.885	6.104	229.077	341	8.808
Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga	1.905	8.886	1.668	8.091	237	796
Ondarea	12.756	19.838	14.455	22.298	-1.699	-2.460
Ez egoiliarren tributazioa	808	2.999	769	3.356	39	-357
ZUZENEKO ZERGAK	438.986	1.411.781	434.773	1.334.860	4.213	76.920
Ondare Eskualdaketak eta O EZ	58.275	102.555	53.790	90.169	4.485	12.386
Balio Erantsiaren gaineko Zerga	154.675	878.266	157.081	839.691	-2.406	38.575
Matrikulazio Zerga	17.099	18.382	19.243	19.826	-2.144	-1.444
Aseguru Primen gaineko Zerga	1.483	18.574	1.525	16.664	-42	1.910
Zerga Bereziak	596	134.245	351	101.177	245	33.068
Joko Tasa	12.792	22.274	13.476	20.185	-684	2.089
ZEHARKAKO ZERGAK ETA JOKO TASA	244.920	1.174.296	245.466	1.087.713	-546	86.584
AITORPENAK GUZTIRA	683.906	2.586.077	680.239	2.422.573	3.667	163.504

(Datuak mila eurokoetan)

Errentako kanpaina 2002/2001 urtealdia

	2001 ERRENTA	2000 ERRENTA	diferentzia
Mekanizatuak	144.283	141.584	2.699
Inprimakikoak	17.225	21.400	-4.175
Disketekoak	15.322	15.834	-512
Telematikoak	136.688	123.917	12.771
GUZTIRA	313.518	302.735	10.783

MEKANIZATUAK	2001 ERRENTA	2000 ERRENTA	diferentzia	
	Aurkeztutako aitortpenak	Aurkeztutako aitortpenak	Kopurua	%
Donostia	54.403	48.598	5.805	%11,94
Azpeitia	8.195	8.498	-303	%-3,57
Bergara	12.218	11.685	533	%4,56
Eibar	9.528	9.677	-149	%-1,54
Hernani	13.797	13.373	424	%3,17
Irun	12.123	11.829	294	%2,49
Errenteria	12.238	15.695	-3.457	%-22,03
Tolosa	9.973	10.398	-425	%-4,09
Beasain	11.808	11.831	-23	%-0,19
GUZTIRA	144.283	141.584	2.699	% 1,91

Ondare zergaren kanpaina 2002/2001 urtealdia

	aitorpen kopurua		zergabilketa	
	2001	2000	2001	2000
Inprimakian eta diskete bidez aurkeztuak	6.968	8.920	18.779	22.057
Telematikoak	6.867	5.937	11.901	9.983
GUZTIRA	13.835	14.857	30.680	32.040

(Datua mila eurokoetan)

Sozietateen zergaren kanpaina 2002/2001

	positiboak		negatiboak	itzultzekoak		guztira	
	Kopurua	Zenbatekoa	Kopurua	Kopurua	Zenbatekoa	Kopurua	Zenbatekoa
2002	5.923	228.486	8.610	1.649	20.196	16.182	208.290
2001	5.682	222.326	8.613	1.668	31.391	15.963	190.935
Diferentzia	241	6.160	-3	-19	14.857	219	17.355

(Datua mila eurokoetan)

Balio erantsiaren gaineko zergaren 2002/2001eko kudeaketa

AITORPEN MOTA	2002		2001		diferentzia	
	Kopurua	Zenbatekoa	Kopurua	Zenbatekoa	Kopurua	Zenbatekoa
Emaitza positibokoak	155.844	894.731	155.271	854.609	573	40.122
Itzulketa eskatutakoak	5.627	-295.192	5.393	-286.731	234	-8.461
Konpentsatu beharrekoak ¹	63.259	192.904	63.944	189.968	-685	2.936
GUZTIRA	224.730	599.539	224.608	567.878	122	31.661

(Zenbatekoa mila eurokoetan)

¹ Ekitaldian ez du zerga bilketako ondorioak

BEZaren bilketa xehatua kontzeptu desberdinen arabera

SARRERA/ORDAINKETA MOTA	2002		2001		diferentzia	
	Kopurua	Zenbatekoa	Kopurua	Zenbatekoa	Kopurua	Zenbatekoa
Ordaindutako aitortpenak urtean zehar	154.803	894.858	153.546	854.660	1.257	40.198
Ordaindutako likidazioak urtean zehar	9.217	50.070	10.139	44.168	-922	5.902
Ordaindutako itzulketak urtean zehar	5.981	-272.542	5.678	-246.048	303	-26.580
Sarrerekin konpentsatutako itzulketak	1.177	-17.542	2.060	-19.448	-883	1.906
Kudeaketa propioz egindako bilketa	171.178	654.759	171.423	633.332	-245	21.427
Aduanako eta inportazioetako zerga bilketaren moldaketak		242.600		236.157	0	6.442
Barne merkatuko zerga bilketaren moldaketak		108.559		91.452	0	17.107
Konpentsazioak eta moldaketak	0	351.159	0	327.609	0	23.549
GUZTIRA	171.178	1.005.917	171.423	960.941	-245	44.976

(Zenbatekoak mila eurokoetan)

Udal zergak. 2002. urtean egindako likidazioak

	Udalek berek egindako zerga bilketa		Aldundiak bere gain hartutako zerga bilketa	
	Kopurua	Zenbatekoa	Kopurua	Zenbatekoa
Ondasun Higiezinaren Zerga	12.520	2.858,8	2.626	638,9
Jarduera Ekonomikoen Zerga	12.956	3.137,4	1.714	383,9
GUZTIRA	25.476	5.996,2	4.340	1.022,8

(Mila eurokoetan emanak)

Ordainagiriaren kanpaina: Aldundiak bere gain hartutako zerga bilketa 2002. urtean

	Jaulkitako ordainagiriak	Kobratutako ordainagiriak	Kobranta portzentaia	Jaulkitako zenbatekoa	Kobratutako zenbatekoa	Kobranta portzentaia
Ondasun Higiezinaren Zerga						
_ Hiri ondasunak	59.688	55.448	%93	7.337	6.765	%92
_ Landa ondasunak	7.435	6.624	%89	302	270	%89
Jarduera Ekonomikoen Zerga	22.691	20.006	%88	7.547	6.614	%88
GUZTIRA	89.814	82.078	%91	15.185	13.648	%90

(Mila eurokoetan emanak)

Ordainagiriaren kanpaina: udalek berek egindako zerga bilketa 2002. urtean

	Jaulkitako ordainagiriak	Zenbatekoa
Ondasun Higiezinaren Zerga		
_ Hiri ondasunak	408.949	65.975
_ Landa ondasunak	8.020	346
Jarduera Ekonomikoen Zerga	51.142	23.164
GUZTIRA	468.111	89.485

(Mila eurokoetan emanak)